

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Kirol-merezimenduko zilarrezko dominetan eta ohorezko aipamenetan hautagaiak aurkezteko epea ireki da

*Hogeita bost urte edo gehiago kirola sustatu izana eta honen alde egin diren garrantzi handiko ekintzak eta ibilbideak sarituko dira*

Asteartea, 2018.eko urriak 16

Urriaren 29arte, hautagaiak aurkez daitezke, Nafarroako Gobernuak urtero saritzen dituen kirol-merezimenduko [zilarrezko dominetan](#) eta [ohorezko aipamenetan](#).

Sari hauen helburua da, zilarrezko dominak ematea Nafarroako Foru Erkidegoan 25 urte baino gehiago eskuzabaltasunez kirola sustatu duten pertsoneri, eta ohorezko aipamenak egitea Nafarroan kirolaren alde egin diren garrantzi handiko ekintza eta ibilbideei. Elkarte eta kirol entitateetan egindako proposamen berritzaileen ekarpena ere baloratuko da.

Kirol taldeek zein beste entitatek (udaletxeak, ikastetxeak, erakundeak eta bestelakoek) hautagaiak aurkez ditzakete ondorengo inprimakia betez. Eskaerak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuan, Nafarroako Gobernuko gainerako erregistroetan edo 30/1992ko legean aipatzen diren lekuetan aurkeztu behar dituzte.

Kirol-merezimenduko zilarrezko dominak eta ohorezko aipamenak Nafarroako Eguneko ospakizun ekitaldietan emango dira.